

Ebazpena: R035/2025
Espedientea: E081/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 29a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) gatazka aurkeztu du Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren aurrean (aurrerantzean, ZAEA). Haren helburua da zehaztea non daukan egoitza fiskala PARQUE EOLICO MODORRA 35 SL zergapekoak (aurrerantzean, MODORRA 35; IFZ: XXXXXXXXXX1). Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 81/2022 zenbakiko espedientean.

I. AURREKARIAK

1.- MODORRA 35 sozietatea 2021eko ekainaren 11n eratu zen; egoitza fiskala Getxon (Bizkaia) zegoen. Gero, 2022ko martxoaren 22an, egoitza fiskala Madrilgo Serrano kaleko 21. zenbakira aldatu zen, eta, gero, 2024ko azaroaren 26an, hiri bereko Alfontso XII.a kaleko 36. zenbakira.

2.- 2022ko ekainaren 6an, oinarritzat harturik Ikuskapenerako Zuzendariordetzak egindako txostena, BFAk ZAEAr eskatu zion MODORRA 35en egoitza fiskala Getxotik (Bizkaia) Madrilera aldatzeko entitatea eratu zeneko atzeraeraginarekin, hau da, 2021eko ekainaren 11ko atzeraeraginarekin.

3.- ZAEAk ez zion erantzun egoitza aldatzeko proposamenari Ekonomia Itunaren 43. artikularen bederatzigarren apartatuan ezartzen den lau hileko epealdiaren barruan, eta, horregatik, isilbidez ezetsizat jo zen.

4.- 2022ko azaroaren 3an, BFAk gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean, hark deklaratu zezan MODORRA 35en egoitza fiskala zuzentzen dela. Izan ere, BFaren iritziz, Madrilen dago 2021eko ekainaren 11z gero, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak ezartzen duenari jarraikiz (Ekonomia ituna maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartu zuen).

5.- 2022ko azaroaren 3an bertan, ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Kudeaketa Bulegoak, Erakunde Harremanetarako Eskualdeko Bulegoak eskatuta, txosten bat eman zuen, egoitza-aldaketa onartzen zuena. Txosten horren arabera, egoitza fiskala lurralde erkidean egon da 2021eko ekainaren 11tik aurrera.

6.- Arbitraje Batzordeak izapidetzeko onartu zuen gatazka, eta 81/2022 espediente-zenbakia esleitu zion. Espediente hori prozedura arruntari jarraikiz izapidetu da. Beraz, bete egin da ZAEAk alegazioak egiteko eta bidezko frogak eta dokumentazioa aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Haren emaitza espedientearen ageri da.

7.- Hasierako alegazioen epealdiaren izapidetan, ZAEAk amore eman zion demandatzailearen uziari.

8.- Azken alegazioen izapidean, MODORRA 35ek adierazi zuen ados zegoela egoitza fiskala Madrilera aldatzearekin, baina atzeraeragina 2022ko martxoaren 22ra atzeratuta.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko , Ekonomia Itunaren 66.Bat c) artikuluan xedatuaren arabera. Artikulu horretan ezartzen denez, Arbitraje Batzordearen funtzioa da:

«c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Zergadunen egoitzari aplikatzekoa den araudia.

Ekonomia Itunaren 43. artikulua lau apartatuak honako ezartzen du:

«Laugarrena. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek egoitza fiskala Euskadin dutela ulertuko da:

(...)

b) Sozietateen gaineko zergaren mendean dauden pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute egoitza soziala eta, betiere, egoitza sozial horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Edo, bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada.

Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan».

Egoitza fiskala aldatzea Ekonomia Itunaren 43.9 artikuluan arautzen da, non hau ezartzen baita:

«Bederatzi. Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza-aldaketa eragin ahal izango du. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, jakin beharreko aurrekariak erantsita, eta lau hilabeteko epea emango dio egoitza-aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta zein egunetatik sortuko diren adierazteko. Beste administrazioak proposamenari baietza ematen badio, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio.

Bi administrazioak ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikuluko honetako Sei apartatuan azaldutako eran.

Egoitza aldatzeko proposamena igorri aurretik, administrazio interesdunak, beste administrazioarekin elkarlanean, eroldaren bidez egiaztatu ahal izango du egoitza fiskala.

Bi administrazioek adostu ondoren edo Arbitraje Batzordearen ebazpenaren ondorioz egoitza ofizioz aldatuz gero, aurkako frogarik ezean, era horretan xedatutako egoitza fiskalari ebazpenaren ondorengo hiru urteetan eutsiko zaiola ulertuko da».

Bestalde, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13. artikuluan arautzen da zer prozedura segitu behar den tributu-administrazioen artean sor litezkeen gatazkak hasteko, eta, 2022ko maiatzaren 26tik aurrera, hau adierazten da:

«Tributu-administrazioen artean sustatzen diren gatazketan, araudi honen 14. artikuluan aurreikusitakoetan izan ezik, hasierari dagokionez, honako prozedura honi jarraituko zaio:

(...)

3. Zergadunen zerga-helbideratzeen ondorioz sortzen diren desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren apartatuan aipatzen den lau hilabeteko epea bi administrazioen aldetik adostasunik izan gabe igarotzen delarik, orduan ez da beharrezko izango artikuluko honen 1. eta 2. apartatuetan aipatzen den errekerimendua edo eskumengabetasun-aitorpena egitea gatazka aurkeztu ahal izateko».

3.- MODORRA 35 entitatearen jarrera.

MODORRA 35 entitateak azken alegazioen izapidean aurkeztutako idazkian, honako adierazpen hauek jasotzen dira, besteak beste:

- MODORRA 35 entitatearen helburu soziala da energia berriztagarrien parkeak sustatzea eta garatzea. 2025eko urriaren 13an, negozio-aukerak aztertzen ari dira oraindik, baina aztertutako eragiketa guztiak dagozkie lurralde erkidean dauden parkeei, hain zuzen ere Gaztela eta Leonen daudenei.
- MODORRA 35ek ez dauka langilerik; Oviedon kokatutako kanpoko aholkularien bidez egiten du bere jarduera, egoitza Madrilen duten enpresa batzuen laguntzarekin (haien zerbitzuek barnean hartzen dituzte negozioaren kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza), eta egoitza fiskala Kanadan daukan lotutako beste enpresa baten laguntzarekin.

- MODORRA 35ek ez dauka ibilgeturik Bizkaian, eta ez du inoiz eduki. Entitatearen aktiboak Gaztela eta Leonen eta Madrilan daude.
- MODORRA 35 entitateak ez dauka inolako loturarik Bizkaiarekin, Bilbon eratu izanaz besterik, eta lotura hori desagertu egin zen egoitza soziala Madrilera aldatu zenean. Horrela, Bizkaian ez daude ez enpresaren egoitza, ez jarduera, ez hornitzaileak, ez administrazio-organoa, ez laguntzaileak, ez bazkidea, ez lotutako sozietateak.

MODORRA 35ek ondorioztatzen du lurralde erkidean egin direla eta egiten direla bere negozioen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza, eta, beraz, MODORRA 35en egoitza fiskala lurralde erkidean dagoela.

Eta, azaldutakoa oinarri hartuta, MODORRA 35ek eskatzen du Arbitraje Batzordeak deklara dezala egoitza fiskala lurralde erkidean daukala 2022ko martxoaren 22tik, hau da, egoitza soziala Bizkaitik Madrilera aldatu zenetik.

4.- Arbitraje Batzordeak amore ematea eta beraren jarrera.

2022ko ekainaren 7an, Erakunde Harremanetarako Eskualdeko Bulegoak ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Kudeaketa Bulegoari eskatu zion erabaki zezala MODORRA 35en egoitza fiskala ofizioz aldatzeko proposamenari buruz.

2022ko azaroaren 3ko txosten batean jaso zen zer jarduketa egin ziren egiaztatzeko non dagoen MODORRA 35en egoitza fiskala. Txosten hori Zerga Kudeaketako ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Kudeaketa Bulegoak egin zuen, eta bertan ondorioztatu zuen onartu behar zela entitatearentzat proposatutako egoitza fiskalaren aldaketa, 2021eko ekainaren 11ko atzeraeraginarekin.

Beraz, ulertuta onartu behar zela BFAk proposatutako aldaketa eta ados egonik egoitza fiskalaren aldaketaren efektuak igortzearekin 2021eko ekainaren 11ra, negozioen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza inoiz ez direlako egon Bizkaian zentralizatuta, ZAEAk, 2025eko ekainaren 11n, eskatu zuen onar zedila amore ematen zuela 81/2022 gatazkan .

Amore ematearen figura ez dago aurreikusita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, APAPEL), zeina aplikagarria baita Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikulua hara bidaltzen gaituelako funtzionamendu-araubideari dagokion guztirako. Aldiz, aurreikusita dago atzera egitea, prozedura amaitzeko modu gisa (APAPEL, 84. artikulua), eta Arbitraje Batzorde honek figura hori aplikatu izan du beste prozedura batzuetan, zeinetan gatazka planteatu zitzaion administrazioak espresuki amore eman baitzuen administrazio sustatzailearen uzian.

Arbitraje Batzordearen uste du ezen, zergaduna prozeduran agertu arren, azkenean administrazioen artean desadostasunik ez badago zergadunaren egoitzaren inguruan, bi administrazioen adostasunak berekin dakarrela, APAPEL-en 94. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordeak onartu behar izatea ZAEAk eskatutako amore ematea, are ondorioen datan ere (2021eko ekainaren 11ko atzeraeragina). Hori guztia, kontuan hartuta gatazka eragin duen gaia ez dela interes orokorrekoa, eta ez dela komeni hura gauzatzea definitzeko eta argitzeko, egiaztatuta geratu baita bi administrazioen arteko adostasuna, eta MODORRA 35ek berak adierazi baitu lurralde erkidean egiten direla, eratu zen unetik, bere negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza.

Hori dela-eta, ebazpen hau ematen da, APAPELen 21.1 artikuluan aipatzen diren erabakiekin.

Horren ondorioz, bertan behera geratu da bi administrazioen arteko gatazka, eta horrek ekarri du gerora desagertzea Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea, eta, horrenbestez, hura artxibatzea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Onartzea Zerga Administrazioko Estatu Agentziak amore ematea Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako 81/2022 Gatazkan.

2.- 81/2022 gatazka artxibatzea, prozeduraren xedea bertan behera geratu baita Zerga Administrazioko Estatu Agentziak amore eman duenean, ikusirik bi administrazioak ados daudela egoitza fiskala lurralde erkidera aldatzearekin 2021eko ekainaren 11ko atzeraeraginarekin.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta PARQUE EOLICO MODORRA 35 SL entitateari.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.